

Gasteizko Urrezko Domina Henrike Knörr-i

Gasteizko Udalak urtero eta Gasteizko zaindari den Andra Mari Zuriaren egunean, abuztuaren 5ean, ageriko ekitaldi bat antolatzen du eta bertan hiriko alkateak iraganeko urtearen oroitza orokorra egiten du eta datorren aldirako aurreikuspena zabaltzen du, nahi eta proiektu nabarmenak agertuz. Udalaren bizitzaren osagarri eta hiri osoaren ohoragarri, urte horretarako lehendik Udalak izendatu diren hiriaren urrezko dominadun izateko pertsonari ematen dio domina.

Aurten bi pertsona izan ziren hautatu urrezko domina hartzeko gai: Henrike Knörr Borràs gure euskaltzaina, eta Amelia Baldeón Iñigo arkeologoa. Lehenengoa, gure Henrike maitea, hil ondorengoa.

Igarotako azken urteetan halako ekitaldia Zulueta jauregian egiten zen, Florida parkearen ondoan, hiri erdian, baina Gasteizko Udalak Salburuko “Ataria” deritzan naturaren interpretazio zentroa ezagutarazi nahi zuela-eta, “Ataria” delako horretara aldatu zuen ekitaldia.

“Ataria” interpretazio gunehori Salburuko aintziren iparraldean dago, hango hezeguneen gain-gainean eta ikusgarri gertatzen da benetan, kanpotik datorren jendearentzat eta hara iristea eroso da. Buesa Arenaren ondoan aurkitzen da, hiriaren zirkunbalaziotik gertu, barruko alderantz.

Baina ez omen dago larrosa arrantzarik gabe Ekologia arauak agintzen duenez “Ataria”-k ez du aire egokiturik eta egia esan orain arteko ipar eta erdiko euskal hirietan soberan dago aire egokitua, baldin eta airea era naturalean berriztatzen bada.

Halabaina, eta ingurumenaren aldetik begiratuta gainera, egun egiten diren eraikin mordo batek aje komun bat badu. Eta da: leiho itxiak izatea, leihoak ezin zabaltzekoak. Eta eraikinaren frontisean leiho batzuk kenduz gero, horrelako itxitura gertatzen da “Ataria”ren barruan ere. Abuztuaren 5ean, 34 °C-ko beroa zela-eta, “Atari”n bildu eta itxi ginenak hor murgildu ginen, atmosfera hestu horretan, gure izerditan garunak egosten.

Patxi Lazcoz Baigorri, Gasteizko alkatea denak, hitzaldi oparoa eskaini zigun, hasieran euskaraz eta gero gaztelaniaz, hango tokian aproposa zen ingurumenari buruzko burutazio aberatsak opatuz. Behin Gasteizen igarotako urtean egindako lanak aipatuz eta hurrengo aldirako bete beharko ziren proiektuak plazaratuz, Gasteiz Euskadiko hiriburua zela gogoratu eta aldarrikatu zigun, Gasteizko Udaletik aparte hor zeuden Euskadiko beste erakundeen ordezkariak ere kontuan

izan zezaten. Lazcoz Baigorri jauna bere sorkuntzaz kaskagogorra zela ziurtatu zigun eta denei Euskadiko hiriburuaren zidor zintzotik joateko inbitatu gintuen.

Gero alkateak berak omentzen genituen bi pertsonen kurrikuluma goraiatu zuen eta hitza eman zien omendutakoei beren agerraldia bilduen aurrean egiteko.

Lehenbizikoa Henrikerena izan zen. Txari Santiago, beraren emazte maitea izan genuen gure aurrean. Orduan bertan harekin batera Henrikeren pertsona ikusten genuen arimaren begiekin. Ekitaldiaren momentu gogoangarriena izan zen hura. Txari Santiago, ahots gozo eta sentipenez beterik, Henrikeren nondik norakoaz mintzatu zitzaigun. Knörr-Santiago bikotearen duintasuna eta dotoretasunaren eredu gertatu zen hitzaldia. Henrike gizatasunean eta euskaltzaletasunean eredugarri genuenentzat hitzaldi sentibera eta betea. Hitzaldia mamitua eta ederra.